

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

**DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTE**ASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Landa Garapeneko Departamentuak eta Landa Eremuko Emakumeen Elkarteak hitzarmena sinatu dute 2011. urterako

Nafarroako Gobernuak 75.000 euroko ekarpena egingo dio erakundeari aholkularitza tekniko, komunikazio eta prestakuntzako jardueretarako

Martes, 19 de abril de 2011

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak eta [Nafarroako Landa Eremuko Emakumeen Elkarteak \(AMUR\)](#) lankidetzeta-hitzarmena sinatu dute. Horren bidez, Departamentu horrek 75.000 euroko ekarpena egingo du Elkarteak 2011. urterako prestatu duen jarduera-plana finantzatzeko.

Hitzarmena Begoña Sanzberro Iturririak, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko kontseilariak eta Miren Sanz Recarte, AMUR elkarteko lehendakariak sinatu dute.

Laguntza hori AMUR elkartearen programari dagozkion hiru ataletan banatzen da: aholkularitza eta laguntza teknikoa (23.500 euro); informazioa eta komunikazioa (22.250 euro) eta emakumearen prestakuntza eta sustapena (29.250 euro).

AMUR elkarte independentea da, emakumeek landa-eremuan duten interesak ordezkatzeko dituen. Guztira, 500 bazkide ditu. Jardueren helburuak Elkarteak urte honetarako lan-planean jasotzen dira, eta hauek dira: emakumeen aukera-berdintasuna sustatzea; ekonomia- eta ekoizpen-jardueretan eta bizitzaren gizarte, ekonomia, politika eta kultura esparru guztietan erabakiak har ditzaten sustatzea; elkarteetan eta nekazaritza-erakundeetan emakume kopurua handitzea, haien lana aintzatesteko: lanbide-prestakuntza, etengabeko prestakuntza eta hezkuntza-prestakuntza indartzea; emakumeek landa-eremuetan egindako etxeko lanaren eta lan profesionalaren balioa aintzatestea; gizarte azpiegiturak eta zerbitzuak sustatzea; nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerak defendatzeko, babesteko eta hobetzeko jarduerak sustatzea; prestakuntza jarduerak eta kanpainak egitea landa-eremuetako emakumeentzat eta haiei lan-orientazioa ematea, laneratzea lortzeko eta emakumeek landa-garapen iraunkorreko prozesuetan parte hartzea.



Landa Garapeneko Departamentuak eta Nafarroako Landa Eremuko Emakumeen Elkartearen arteko hitzarmena. Irudian Sanzberro kontseilaria eta Miren Sanz, AMUR elkarteko lehendakaria

Hitzarmenaren ondorioz, Elkarteak zenbait jarduera gauzatzeko konpromisoa hartuko du, esparru hauetan:

- Aholkularitza eta laguntza teknikoan, hitzarmenak Elkarteak hobeto funtzionatzeko diren jardueretan laguntzen du, hala nola barne eta kanpo bileretan, AMUR elkarteko teknikari eta ordezkariari aholkularitza ematen die, asoziazionismoan prestatzen du eta gida eta ikasmaterialak argitaratzen ditu.

- Informazioan eta komunikazioan bi ildo handi ezartzen ditu: komunikazio plana eta hedabideen politika, eta Elkartearen webaren edukiak mantentzea eta eguneratzea.

- Prestakuntza arloan, hitzarmenak jardunaldiak, tailerrak eta ikastaroak egiteaz gain, zenbait prestakuntza-jardueretan parte hartzea ere jasotzen, hala nola foro, hitzaldi eta mahai-inguruetan. Bestalde, ardo eta olio dastaketak ere antolatzeke asmoa du, emakumeentzat, Nafarroako upeltegietan. Gehienez, 20 emakumeko lau talde izango dira.